

## Adineko pertsonak zahar-egoitzan sartzeko diru-laguntza emateko oinarri arautzaileak.

### Bases reguladoras de la concesión de ayuda directa para el ingreso en un centro residencial de personas mayores en situación de desprotección

#### Babesgabetasun egoeran dauden helduentzako egoitza zentro batean sartzeko laguntza zuzena emateko oinarri arautzaileak.

12/2008 Legearen, abenduaren 5ekoaren, Gizarte Zerbitzuei buruzkoaren, helburua honako hau da: Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan gizarte zerbitzuen eta prestazio eta zerbitzuetarako eskubidea sustatzea eta bermatzea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema unibertsala arautuz eta antolatuz.

Bestalde, 6. artikuluan xedatzen du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren (GZES) helburua:

- a) Autonomia pertsonala sustatzea eta **mendekotasun egoerak ekarritako norberaren** eta senideen **beharrak** prebenitzea eta haiei **erantzutea**.
- b) Babesgabetasun egoerek sortutako **beharrak prebenitzea** eta haiei **erantzutea**.
- c) **Esklusio egoerak** prebenitzea eta haiei **erantzutea**, eta pertsonen, familien eta taldeen gizarte integrazioa sustatzea.
- d) **Larrialdi egoerek** eragindako **behar pertsonal** eta familiarrak prebenitzea eta haiei **erantzutea**.

16. artikulua GZESen prestazio ekonomikoak definitzen ditu, eta 22.3. artikuluan prestazio ekonomikoak sailkatzen ditu. Horien artean, aipatzekoak dira GZES beraren xedeen esparruan ezarri daitezkeen prestazio ekonomikoak (3.5.). Arau horretan

#### Bases reguladoras de la concesión de ayuda directa para el ingreso en un centro residencial de personas mayores en situación de desprotección.

La ley 12/2008, de 5 de diciembre del 2008 tiene por objeto promover y garantizar en el ámbito de la CAPV el derecho a las prestaciones y servicios sociales mediante la regulación y ordenación de un Sistema Vasco de Servicios Sociales de carácter universal.

El artículo 6 establece la finalidad del Sistema Vasco de Servicios Sociales (SVSS):

- a) Promover la autonomía personal y prevenir y **atender las necesidades personales** y familiares **derivadas de la situación de dependencia**.
- b) Prevenir y **atender las necesidades** originadas por **situaciones de desprotección**.
- c) Prevenir y **atender situaciones de exclusión** y promover la integración social de las personas, de las familias y grupos.
- d) Prevenir y **atender las necesidades personales** y familiares originadas **por las situaciones de emergencia**.

El artículo 16 define las prestaciones económicas propias del SVSS y en el artículo 22.3 se categorizan las distintas prestaciones económicas. Entre ellas, cabe destacar las prestaciones económicas que pueden establecerse en el marco de las finalidades propias del SVSS (3.5). Las ayudas reguladas en

## Adineko pertsonak zahar-egoitzan sartzeko diru-laguntza emateko oinarri arautzaileak.

### Bases reguladoras de la concesión de ayuda directa para el ingreso en un centro residencial de personas mayores en situación de desprotección

araututako laguntzak ez daude sailkapen horren barruan.

Horrez gain, garrantzitsua da azpimarratzea udal agintaldiko planaren helburuan helduentzako politikak lehenetsunekoak direla, eta plan horren bosgarren helburu estrategikoa dela gure helduentzako politikak indartzea.

Asmoa da manu horren bitartez arautzea babesgabetasun egoeran dauden eta egoitza batean sartu behar duten pertsonentzako laguntzak (behin-behineko egonaldia edo egonaldi luzea).

#### 1. artikulua.- Xedea

Arau honen xedea da babesgabetasun egoeran dauden helduak, egoitza zentro batean sartu behar direnak, bertan sartzeko diru laguntza zuzenak ematea bereziki arautzea, 38/2003 Legearen, azaroaren 17koaren, Diru Laguntzen Lege Orokorraren, 22.2.c) eta 28.3. artikuluetan aurreikusitakoari jarraituz.

**Ezohiko laguntza horiek izaera berezia dute.** Izan ere, haien helburua da subsidiarioki erantzuna ematea egoitza plaza publiko baterako sarbiderik ez duen eta babesgabetasun egoeran dagoelako premiaz egoitza batean sartu behar duen pertsona bati.

Laguntza **mugatzaile eta subsidiarioak dira eta ez dira bateragarriak** 12/2008 Legearen 22.1. eta 22.2. artikuluetan, eta geroko arauzko garapenetan, jasotako ezein egoitza zerbitzu eta prestaziorekin. Horietatik honako hauek nabarmendu ditzakegu: lehen mailako arretaren ostatu zerbitzuak (tutoretzapeko etxebizitza, tutoretzapeko

esta norma quedarán enmarcadas en dicha categorización.

Además es importante destacar que en la misión del Plan de Legislatura municipal las políticas dirigidas a las personas mayores son prioritarias y el quinto de los objetivos estratégicos es fortalecer las políticas dirigidas a nuestros/as mayores.

Mediante esta norma se pretenden regular las ayudas a las personas, que estando en situación de desprotección, requieran un ingreso residencial (temporal o de larga estancia).

#### Artículo 1.- Objeto.

Esta norma tiene por objeto la regulación especial de la concesión de subvención directa, para el ingreso en un centro residencial de las personas mayores en situación de desprotección, que así lo requieran, de acuerdo con lo previsto en el artículo 22.2 c) y 28.3 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

Estas **ayudas excepcionales son de carácter singular** puesto que pretenden dar respuesta, de forma subsidiaria, a la persona que no tiene acceso a una plaza pública residencial y que requiere de un ingreso residencial urgente por hayarse en una situación de desprotección.

Son ayudas **restrictivas, subsidiarias y no son compatibles** con ninguno de los servicios y prestaciones residenciales recogidos en el artículo 22.1 y 22.2 de la Ley 12/2008 y posterior desarrollo reglamentario. Entre ellas, podemos destacar: los servicios de alojamiento (vivienda tutelada, apartamento tutelado o vivienda comunitaria) de la atención primaria y centros

## **Adineko pertsonak zahar-egoitzan sartzeko diru-laguntza emateko oinarri arautzaileak.**

### **Bases reguladoras de la concesión de ayuda directa para el ingreso en un centro residencial de personas mayores en situación de desprotección**

apartamentua edo etxebizitza komunitarioa) eta helduentzako foru sareko egoitza zentroak.

**Interes publiko, sozial eta humanitarioa du** babesgabetasun egoeran dauden eta GZESn edo beste sistema batzuetan ezarritako zerbitzuetarako eta prestazioetarako sarbiderik ez dutenei eta beren ongizatea arriskuan dutenei erantzun egokia emateak.

Kontuan hartuta babesgabetasun egoera hori ustekabekoa dela, bat-batekoa eta azkar konpondu beharrekoa dela, zaila da deialdi publiko bat egitea.

#### **2. artikulua.- Modalitate motak.**

Egoitzako plazen laguntzetarako bi modalitate ezarri dira.

Egoitzak iraungo duenaren aurreikuspenaren arabera, behin-behineko egonaldi bat edo egonaldi luze bat izan daiteke.

##### **2.1 Behin-behineko egonaldia**

Honako egoera hauetan daudenentzako behin-behineko egonaldiak:

a) Zerbitzu sozial eta sanitarioen sarera sartzen ez diren eta susperraldian edo aldi baterako mendekotasun funtzional egoeran dauden pertsonak, familiaren edo haiek behar duten zaintza beren gain hartu dezakeen beste pertsonaren baten laguntzarik ez dutelako babesgabetasun egoeran egoteko arriskuan daudenak.

b) Babesgabetasun egoeran dauden pertsonak, egoitza zentro bateko plaza

residenciales para las personas mayores de la red foral.

**Es de interés público, social y humanitario** dar una respuesta adecuada a las necesidades de las personas que se encuentran en situación de desprotección y que no tienen acceso a los servicios y prestaciones establecidas en el SVSS u otros sistemas y su integridad está en riesgo.

Teniendo en cuenta que es un situación de desprotección imprevista, sobrenvenida y que debe ser resuelta con celeridad, es difícil realizar una convocatoria pública.

#### **Artículo 2.- Tipos de modalidades.**

Se establecen dos modalidades de ayudas de plaza residencial.

Dependiendo de la duración prevista de la estancia, se podrá tratar de un ingreso temporal o de una larga estancia.

##### **2.1 Ingreso temporal**

Ingresos temporales para personas que se encuentren en las siguientes situaciones:

a) Personas que no accedan a la red de servicios sociosanitarios y que estén en periodo de convalecencia o dependencia funcional transitoria y que al no contar con apoyos familiares u otras personas que puedan hacerse cargo de la atención que precisan, se hayan en situación de riesgo de desprotección.

b) Personas en situación de desprotección, a la espera de resolución de la Diputación Foral de

## **Adineko pertsonak zahar-egoitzan sartzeko diru-laguntza emateko oinarri arautzaileak.**

### **Bases reguladoras de la concesión de ayuda directa para el ingreso en un centro residencial de personas mayores en situación de desprotección**

bat adjudikatzeko Bizkaiko Foru Aldundiaren ebazpenaren zain daudenak.

Bizkaia de adjudicación de plaza en un centro residencial.

c) Salbuespen modura, eta babesgabetasun egoeran egon behar izanik gabe, tutoretzapeko apartamentuetako erabiltzaileak, haietan ezin badira egon autonomia galdu dutelako; horrela, arretaren jarraitutasuna bermatuko da.

c) Excepcionalmente, y sin que sea necesario hallarse en situación de desprotección, personas usuarias de apartamentos tutelados que no puedan permanecer en los mismos por pérdida de autonomía, garantizando así el continuo de atención.

Behin-behineko egonaldien gehieneko iraupena 3 hilabetekoa da, eta beste 3 hilabetez luzatu ahal izango da, erreferentziazko gizarte langileak aurrez txosten bat egin badu eta oinarrien koordinatzaileak oniritzia eta organo eskudunak adostasuna eman badute.

El plazo máximo de estancia en ingreso temporal será de 3 meses y podrá ser prorrogado otros 3 meses, previo informe de la Trabajadora Social de referencia, con el VºBº de la Coordinadora de Bases y acuerdo del órgano competente.

## **2.2 Egonaldi luzea**

Honako arrazoi hauetakoren bategatik babesgabetasun egoeran daudenei zuzendutakoak:

a) Pertsona horren egoera psikologiko, sozial eta sanitarioak ez badu bermatzen norberaren zaintzaren oinarrizko beharrak eta laguntzeko pertsonarik ez badago.

b) Babesgabetasun egoera baten aurrean ez badago laguntzeko legezko betebeharra duen seniderik, edo dauden laguntzaileek pertsonaren babesa bermatzen ez badute.

## **2.2 Ingreso larga estancia**

Dirigidas a personas en situación de desprotección por alguno de los siguientes motivos:

a) Cuando la situación psicosociosanitaria de la persona, no garantice la cobertura de las necesidades básicas de autocuidado y exista ausencia de personas de apoyo.

b) Cuando ante una situación de desprotección, no existan familiares con obligación legal de asistencia o que los apoyos existentes no garanticen la protección de la persona.

## **3. artikulua.- Hartzaileak eta betekizunak.**

Honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

## **Artículo 3.-Personas destinatarias y requisitos.**

Aquellas que reúnan los siguientes requisitos:

**3.1** Eskara egiteko unean Getxon erroldatuta egotea, bertan egotea legezko eta egiazko bizitokia, eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren batean erroldatua egon izana 12 hilabetez jarraian, eskaera egiteko dataren aurreko 12 hilabeteetan.

**3.2** Babesgabetasun egoeran egotea. Babesgabetasun egoeratzat joko dira babesgabezia, defentsagabezia, zaintzagabezia eta babesgabetasuna (laguntza moral eta materialik eza). Hauek izan daitezke:

a) Pertsona helduak, beren burua zaintzeko gaitasunik gabeak, beste pertsona batzuen laguntzarik ez dutenak (hemen sartuta daudela ulertuko da bere etxean isolatzen diren eta emandako laguntza onartzen ez duten pertsonen kasua).

b) Zabarkeria zaintza sanitarioetan eta etxeko higiean (zabor pilaketak). Etxebizitzaren kontserbazio eta higie egoera txarra da.

c) Narriadura fisiko orokorra eta/edo elikadura egoera txarra, norberaren higie txarra.

d) Bere burua zaintzeko gaitasunik gabeko helduak, beste pertsona batzuen laguntza zutenak, bat-batean laguntza hori eman ezin badiete.

e) Bere burua zaintzeko gaitasunik gabeko helduak, bere osotasun fisiko eta/edo psikikorako segurtasun ezeko edo indarkeriazko egoera batean egon direnak, eta babesa edo laguntza emango dion harremanik ez dutenak,

**3.1** Estar empadronado y con residencia legal y efectiva en Getxo en el momento de la solicitud y haberlo estado en algún municipio de la Comunidad Autónoma del País Vasco durante 12 meses continuados inmediatamente anteriores a la fecha de solicitud.

**3.2** Encontrarse en situación de desprotección, entendiéndose como tal situaciones en las que se constata falta de protección, falta de defensa, falta de cuidados, desamparo (falta de asistencia moral y material). Pueden ser:

a) Personas adultas sin capacidad de auto cuidado y que no cuenten con apoyos de otras personas (se incluyen aquí las situaciones en las que la persona se aísla en su domicilio y no permite que el apoyo se preste).

b) Negligencia de cuidados sanitarios, de higiene personal del hogar (acumulación de basura). La vivienda se encuentra en un estado deficiente de conservación e higiene.

c) Deterioro físico general y/o mal estado nutricional, higiene personal deficiente.

d) Adulto sin capacidad de autocuidado, que venía contando con el apoyo de otras personas y que, de manera súbita no pueden prestárselo.

e) Persona adulta sin capacidad de autocuidado, que ha sido sometida a una situación de violencia e inseguridad para su integridad física y/o psíquica, con falta de ayuda y/o protección y carece de relaciones que le procuren

## Adineko pertsonak zahar-egoitzan sartzeko diru-laguntza emateko oinarri arautzaileak.

### Bases reguladoras de la concesión de ayuda directa para el ingreso en un centro residencial de personas mayores en situación de desprotección

segurtasun bermeekin bizitzeko sostengu moduan balioko dienik.

protección o respaldo y/o sostén para subsistir con garantías de seguridad.

**3.3** Eskaera aurkezten den egunean 60 urte beteta izatea. Aurrekoa gorabehera, laguntza eskatu ahal izango du egoitza batean ase daitezkeen beharrak dituen eta babesgabetasun egoeran dagoen edozein pertsonak.

**3.3** Tener 60 años cumplidos en la fecha de presentación de la solicitud. No obstante a lo anterior, podrá solicitar asimismo la ayuda, cualquier persona en situación de desprotección, que presente necesidades que puedan ser cubiertas en una residencia.

**3.4** Nahikoa baliabide ez izatea egoitza zentro bat ordaintzeko.

**3.4** Carecer de recursos suficientes para hacer frente al pago de un centro residencial.

Honako kasu hauetan ulertuko da pertsona batek edo, hala badagokio, familia unitateak ez duela nahikoa baliabiderik:

Se considerará que no se dispone de recursos suficientes, cuando la persona o en su caso la unidad familiar:

- a) 18/2008 Legeak, Diru Sarrerak bermatzekoak, orokorrean kide kopuruaren arabera ezarritako aurreko urteko DSBeri dagokion zenbatekoaren (orokorra edo pentsionista, kasuaren arabera) hirukoitza baino gehiagoko urteko diru sarrerarik ez badu (diru sarreratzat joko dira pentsioetatik, errentetatik eta interesetatik eratorritakoak).
- b) Familia unitatearen ondare higigarri eta higiezinaren guztizko zenbatekoa 12.000 eurokoa edo gutxiagokoa izatea. (Lonjen, pisuen eta abarren katastro balioa, salbu eta ohiko etxebizitza eta osatzen zaila den ondarea).

- a) no disponga de unos ingresos anuales (entendiendo como ingresos los procedentes de pensiones, rentas e intereses) superiores a 3 veces la cuantía correspondiente de RGI (con carácter general o pensionista, según el caso) del año anterior y que establece la Ley 18/2008 para la Garantía de Ingresos con carácter general según el nº de miembros.
- b) el total del patrimonio mobiliario e inmobiliario de la unidad familiar sea igual o inferior a 12.000€. (valor catastral de lonjas, pisos, etc excepto la vivienda habitual y aquel patrimonio que sea de difícil realización).

Artikulu honetan xedatutako beharrezko baliabideen irizpenari jarraituz, honako hauek izango dira sartzeko gehieneko zenbatekoak eta muga ekonomikoak

En base a la consideración de recursos suficientes establecida en este artículo, las cuantías máximas y topes

económicos de acceso serán las siguientes:

<b>KIDE KOPURUA</b>	<b>GEHIENEO URTEKO DIRU SARRERAK (URTEKO 3 DSBE 2020)</b>	<b>Nº DE MIEMBROS</b>	<b>INGRESOS ANUALES TOPE ( 3 RGI ANUAL AÑO 2020)</b>
1	28.654,2€	1	28.654,2€
2	35.817,84€	2	35.817,84€
3 edo gehiago	38.683,08€	3 ó más	38.683,08€

Baliabideak baloratzeko, honako hauek osatutakoa jotzen da familia unitatetzat:

- Eskatzailea.
- Ezkontidea edo ezkontidearekin parekatu daitekeen harremana duen bikotekidea.
- Menpekotasun ekonomikoa duten seme-alabak.

A efectos de la valoración de recursos, se entiende por unidad familiar a la integrada por:

- La persona solicitante.
- Cónyuge o pareja con relación análoga a la conyugal.
- Hijos/as económicamente dependientes.

**3.5** Agindu teknikoa jasotzen duen aldeko txosten soziala, erreferentziatzko gizarte langileak egindakoa eta oinarrien koordinatzailearen oniritzia duena, babesgabetasun egoeraren eta premia egoeraren inguruabarrak definituko dituena eta beste aukerarik eza justifikatuko duena.

**3.5** Informe Social favorable que incluya la prescripción técnica, emitido por la Trabajadora Social de referencia y con el VºBº de la Coordinadora de Bases, que defina las circunstancias de la situación de desprotección y urgencia si la hubiere, y justifique la ausencia de otras alternativas.

#### **4. artikulua.- Eskabideak aurkeztea.**

Onuradunaren espedientea ebatzi baino lehen, honako dokumentazio hau aurkeztu behar da:

#### **Artículo 4.- Presentación de solicitudes.**

Previo a la resolución del expediente la persona beneficiaria debe presentar la siguiente documentación:

## Adineko pertsonak zahar-egoitzan sartzeko diru-laguntza emateko oinarri arautzaileak.

### Bases reguladoras de la concesión de ayuda directa para el ingreso en un centro residencial de personas mayores en situación de desprotección

- a) Adineko pertsonak zahar-egoitzan sartzeko diru-laguntzaren eskaera (Anexo I)
  - b) Familia unitateko kide guztien baimena datuak kontsultatu edota egiaztatzeko aldizkakoak ez diren udal laguntzak normalizatuta dagoen dokumentuan, (Anexo II). Honako datuak:
    - 1. Identifikatzeko datuak.
    - 2. Errolda ziurtagiria.
    - 3. Gizarte Segurantzaren prestazio publikoak
    - 4. Katastroko titulartasunaren ziurtagiria.
    - 5. Langabezia-prestazioa egungo zenbatekoa.
    - 6. Lan-bizitza ziurtagiria.
    - 7. Prestazioak jasotzea ziurtagiria eta prestazioen zenbatekoa (RGI, PCV).
  - c) Bankuko saldoen eta gordailuen egiaztagiria. (Anexo III)
  - d) Eskatzailearen egiaztagiri medikoa, eredia batean oinarritutakoa. (Anexo IV)
  - e) Egoitzan sartzea aske onartzearen dokumentua. (Anexo V)
  - f) Eskatzailearen OTIaren fotokopia.
  - g) Mendekotasunaren balorazio eskaeraren kopia eta/edo haren ebazpenarena.
  - h) Beharraren egoera babesten duen beste edozein dokumentu eta/edo gizarte langileak hura egiaztatzeko eskatutako edozein dokumentu.
  - i) Estatuko edo Bizkaiko Ogasun Sailak edota jaioterriko erakunderen batek emandako
- a) Solicitud de ayuda económica según modelo normalizado (Anexo I)
  - b) Autorización de todas las personas que forman parte de la unidad familiar para la consulta o verificación de datos de procedimientos administrativos, según modelo normalizado, (Anexo II) de los siguientes datos:
    - 1. Datos de identidad
    - 2. Certificado de empadronamiento
    - 3. Importe de prestaciones públicas de la Seguridad social
    - 4. Certificado catastral de bienes inmuebles.
    - 5. Importes actuales de la prestación de desempleo.
    - 6. Certificado de vida laboral
    - 7. Certificado que acredite la percepción de prestaciones e importe de las mismas (RGI)
  - c) Certificado de saldos y depositos bancarios. (Anexo III)
  - d) Informe médico según modelo de la persona solicitante. (Anexo IV)
  - e) Documento de Libre aceptación de ingreso. (Anexo V)
  - f) Fotocopia de la TIS de la persona solicitante.
  - g) Copia de la Solicitud de Valoración de Dependencia y/o resolución de la misma.
  - h) Cualquier otro documento que avale la situación de necesidad y/o que sea requerido por la trabajadora social para constatar la misma.
  - i) Certificado de bienes muebles e inmuebles del solicitante y en su caso de todos los miembros de la unidad familiar (foral)



**Adineko pertsonak zahar-egoitzan sartzeko diru-laguntza emateko oinarri arautzaileak.**

**Bases reguladoras de la concesión de ayuda directa para el ingreso en un centro residencial de personas mayores en situación de desprotección**

- ondasun higieinei eta buruzko egiaztagiriak
- j) Azken Errenta-aitorpenaren fotokopia edo, haren ordeztu, aitorpena ez egitea egiaztatzeke Ogasunak emandako ziurtagiria.

- j) Copia de la última declaración de la renta o en su caso certificado de Hacienda de no tener obligación de hacerla.

Administrazio espedientea osatze aldera, honako dokumentu hauek aurkeztuko ditu Getxoko Udalak:

Asimismo, y a efectos de completar el expediente administrativo, el Ayuntamiento de Getxo aportará los siguientes documentos:

- a) Baterako erroldaren ziurtagiria.  
b) Txosten soziala eta proposamena, oinarritzko gizarte zerbitzuek egindakoak.

- a) Certificado de empadronamiento colectivo.  
b) Informe social y propuesta, elaborado por los Servicios Sociales de Base.

**5. artikulua.- Onuradunaren betebeharrak.**

**Artículo 5.- Obligaciones de la persona beneficiaria.**

Onuradunak betebehar hauek izango ditu:

Son obligaciones de la persona beneficiaria:

- Erreferentziazko gizarte langileari jakinaraztea baldintzak betetzeari lotutako edozein egoera aldaketa.

- Comunicar a la Trabajadora Social de referencia, cualquier cambio que se produzca en su situación con relación al cumplimiento de los requisitos y más específicamente los siguientes:

- a) Osasun egoeraren aldaketak.  
b) Prestazioa kalkulatzeko oinarri moduan balio izan duten baliabideen aldaketak.  
c) Egoera hobetzen laguntzen duten edo beharrak asetzen dituzten beste prestazio edo zerbitzuak jaso izana, beste organo eskudun batzuen eskutik.  
d) Laguntza eman izanaren kausaren bat eta/edo hura arrazoitu zuten inguruabarren bat desagertu edo aldatu izana.

- a) Cambios de la situación de salud.  
b) Modificación de los recursos que hayan servido de base para el cálculo de la prestación.  
c) Concesión de otro tipo de prestaciones o servicios que contribuyan a la mejoría de la situación, o garanticen las necesidades; por parte de otros organismos competentes.  
d) Desaparición o modificación de cualquiera de las causas y/ o circunstancias, que motivaron la concesión de la ayuda.

## **Adineko pertsonak zahar-egoitzan sartzeko diru-laguntza emateko oinarri arautzaileak.**

### **Bases reguladoras de la concesión de ayuda directa para el ingreso en un centro residencial de personas mayores en situación de desprotección**

- Mendekotasuna baloratzeko edo berrikusteko eskaera egitea, gizarte langileak egoki iritzi dionean.
- Realizar solicitud de valoración o revisión de dependencia, cuando así lo valore la Trabajadora Social.
- Gizarte Zerbitzuetan agertzea eta horiekin lankidetzan aritzea eskatutakoan.
- Comparecer ante los Servicios Sociales y colaborar con los mismos cuando sean requeridas.
- Araudi honi (6. artikulua) jarraituz, egoitza zentroari dagokion hileko kuota ordaintzea.
- Abonar la parte de la cuota mensual que le corresponde en virtud de la presente normativa (art. 6) al centro residencial.
- Plaza publiko batean edo udal egoitzan sartzeko edo hara eramateko proposamena onartzea, baldin eta ez badago horren aurkako arrazoi sozial eta sanitariorik. Hara sartzea edo eramatea egokia ez bada, gizarte langileak txosten sozial baten bitartez arrazoitu beharko du, eta koordinatzailearen oniritzia jaso beharko du.
- Aceptar propuesta de ingreso o traslado a una plaza pública o a la residencia municipal, siempre y cuando no existan razones de carácter sociosanitario que lo desaconsejen. La no conveniencia de ingreso o traslado será motivado mediante informe social por la trabajadora social y avalado con el VºBº de la Coordinadora.

#### **6. artikulua.- Aurrekontu muga, plazaren gehieneko kostua eta laguntza ekonomikoaren zenbatekoa zehaztea.**

#### **Artículo 6.- Límite presupuestario, coste máximo de la plaza y determinación de la cuantía de la ayuda económica.**

2021erako aurrekontu muga 65.000 eurokoa da, 002 2313 48000 partidaren kontura ordaindutakoak.

Para el año 2021, el límite presupuestario asciende a **65.000** euros, imputables a la partida 002 2313 48000.

Finantzaketarako, plazaren gehieneko kostu teorikoa zenbateko honetan ezarri da 2021rako: 69,87 € eguneko (BEZ barne)

A los efectos de la financiación, el costo teórico máximo de las plazas se fija para el año 2021 en: 69,87€/día (IVA incluido).

Plazaren kostua udal gizarte zerbitzuek eta onuradunak koordainketaren bidez hartuko dute beren gain, banaketa irizpide hauei jarraituz:

El coste de la plaza será asumido mediante co-pago entre los Servicios Sociales Municipales y la persona beneficiaria, siguiendo los siguientes criterios de reparto:

#### Erabiltzailearen ekarpena:

#### Aportación de la persona usuaria:

a) Pertsona bakarrik badago: Diru sarreraren % 85 emango du.

a) Caso de persona sola: Aportará el 85% de sus ingresos.

## **Adineko pertsonak zahar-egoitzan sartzeko diru-laguntza emateko oinarri arautzaileak.**

### **Bases reguladoras de la concesión de ayuda directa para el ingreso en un centro residencial de personas mayores en situación de desprotección**

b) Aurretik aipatutako baldintzetako elkarbizitza unitateen kasuan, per capita errenta kalkulatu da, eta haren arabera aplikatu da diru sarreraren % 85eko ehunekoa.

b) Caso de unidad de convivencia en los términos anteriormente expuestos, se calculará la renta per cápita y sobre esta se aplicará el porcentaje del 85% de los ingresos.

Egonaldi luzeen kasuan, nahieran erabiltzeko urteko 1.000 euroko gutxieneko zenbateko bat bermatu da, erabiltzaile baten ekarpenaren ondoren geratzen zaion % 15 1.000 eurotik beherakoa denean aplikatu ahal izango dena.

En los casos de larga estancia, se garantizará una cuantía mínima de libre disposición equivalente a 1.000€/año, aplicable en los supuestos en los que el 15% restante de la aportación de la persona usuaria sea inferior a 1.000€.

Kasu guztietan, erabiltzaileak egoitzaren plazaren kostua osorik ordaindu beharko du, haren ondarea 3.000 euro edo gutxiagokoa izan arte. Ezkontideen edo parekoen kasuetan, zenbateko hori 5.000koa izango da.

En todos los casos, la persona usuaria deberá abonar el coste total de la plaza de la residencia hasta que su patrimonio sea igual o inferior a 3.000€. En caso de cónyuges o equivalentes, esta cantidad ascenderá a 5.000€.

#### Udal ekarpena:

Udal ekarpena izango da plazaren kostu teorikoari onuradunaren ekarpena kentzearen emaitza.

#### Aportación Municipal.

La aportación municipal será la cantidad que resulte de deducir del coste teórico de la plaza la aportación que corresponde a la persona beneficiaria.

Aurretik aipatutako bi alderdiek plaza ordaintzeko betebeharra hasiko da ebazpenean adierazitako datan.

La obligación de pago del coste de la plaza por las dos partes antes mencionadas, tendrá inicio en la fecha que se indique en la resolución.

### **7. artikulua.- Diru laguntza emateko prozedura.**

Diru laguntza zuzenean ematen da, 38/2003 Legearen, azaroaren 17koaren, Diru Laguntzei buruzko Lege Orokorraren, 22.2.c) artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, lege horren 28. artikuluan 2. eta 3. ataletan ezarritakoari lotuta, interes publikoko, sozialeko eta humanitarioko arrazoiak daudelako.

### **Artículo 7.- Procedimiento de concesión**

La subvención se concede de forma directa, en aplicación de lo previsto en el artículo 22.2.c) de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, general de Subvenciones, en relación con lo establecido en los apartados 2 y 3 del artículo 28 de dicha Ley, por concurrir razones de interés público, social y humanitario.

Diru laguntza hori emateko proposamen batean oinarritu beharko da, eta bertan justifikatu beharko dira hura ematea arrazoitzeko inguruabarrak, eta, bereziki, laguntzeko legezko betebeharra duten beste entitate fisikorik edo juridikorik eza.

Dicha subvención deberá estar basada en una propuesta de concesión donde se justifiquen las circunstancias motivadoras de la misma, y en especial, la ausencia de otras entidades físicas o jurídicas con obligación legal de asistencia.

Udal laguntza hori ezingo da inola ere konpentsatu edo deskontatu, atxiki edo enbargatu.

Esta ayuda municipal no podrá ser en ningún caso, objeto de compensación o descuento, retención o embargo.

Espedientea dekretu baten bidez ebatziko da, edo Tokiko Gobernu Batzordeak onartuko du, eman beharreko laguntzaren zenbatekoaren arabera.

La resolución del expediente se realizará mediante Decreto o aprobación por parte de la Junta de Gobierno Local, en función del importe de la ayuda a conceder.

## **8. artikulua- Justifikazioa.**

## **Artículo 8.- Justificación**

Diru laguntzaren xedea bermatze aldera, eta justifikazioa errazteko, udal diru laguntza zuzenean egoitza zentroari ordainduko zaio, hark udal gizarte zerbitzuetara hileko faktura bidali eta gero.

De cara a garantizar el destino de la ayuda y a favorecer su justificación, la ayuda económica municipal se abonará directamente al centro residencial respectivo, previa remisión de la factura mensual por parte de éste a Servicios Sociales Municipales.

Onuradunak zuzenean hartu duen egoitzari ordainduko dio araudi honetan xedatutakoaren arabera dagokion zenbatekoa.

La persona beneficiaria abonará directamente al centro residencial en el que se encuentre ingresada la cuantía que le corresponde en virtud de lo dispuesto en el presente reglamento.

## **9. artikulua- Jarraipena.**

## **Artículo 9.- Seguimiento**

Getxoko Udaleko gizarte zerbitzuek urtero diru laguntza hauen onuradunaren jarraipen txosten bat egingo dute, egiaztatzeko diru laguntza horiek aurreikusitako xedeetara egokitu direla eta haiek emateko beharra mantentzen dela.

Los Servicios Sociales del Ayuntamiento de Getxo realizarán un informe anual de seguimiento de la persona beneficiaria de estas ayudas, a efectos de comprobar mediante el mismo que las referidas ayudas se hayan adecuado a los fines previstos y el mantenimiento de la necesidad que genero la misma.

**Adineko pertsonak zahar-egoitzan sartzeko diru-laguntza emateko oinarri arautzaileak.**

**Bases reguladoras de la concesión de ayuda directa para el ingreso en un centro residencial de personas mayores en situación de desprotección**

**10. artikulua.- Helduentzako egoitza zentro batean sartzeko diru laguntza zuzena ematearen publizitatea.**

Ez da zabalduko helduentzako egoitza zentro batean sartzeko diru laguntza zuzenak eman direla, horiek zabaltzea laguntza jasotzen duten pertsonen edo familiaren intimitatearen ohorea babestearen eta errespetatzearen aurkakoa bailitzateke, bakoitzaren irudiaren, intimitate pertsonalaren eta familiarraren eta ohorearen eskubidearen babes zibila oinarri hartuta. Hori guztia 38/2003 Legearen, azaroaren 17koaren, Diru Laguntzei buruzkoaren, 20.8.c artikuluan xedatutakoa aplikatuz.

**Artículo 10.- Publicidad de las concesiones de subvención directa para el ingreso en un centro residencial de personas mayores.**

No serán objeto de publicidad las concesiones de subvención directa para el ingreso en un centro residencial de personas mayores por ser dicha publicidad contraria al respeto y salvaguarda del honor, a la intimidad personal o familiar de las personas beneficiarias en virtud de la protección civil del derecho al honor, intimidad personal y familiar y a la propia imagen, todo ello en aplicación del Art. 20.8 c de la Ley 38/2003 de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

**11. artikulua.- Araubide juridiko aplikagarria.**

Laguntza hau, gainera, honako hauek xedatutakoak arautuko du: 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoaren Lege Orokorra; eta 887/2006 Errege Dekretuak, uztailaren 21ekoak, onetsitako araudia, publizitatearen eta gardentasunaren printzipioei dagokienez ezarritakoa salbu eta Datu pertsonalak çbabesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko 3/2018 Lege Opornikoa, abenduaren 5koa.

**Artículo 11.- Régimen jurídico aplicable**

Esta ayuda se regirá, además de por lo dispuesto en la presente Norma, por lo establecido en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, y en su Reglamento aprobado por el RD 887/2006, de 21 de julio, salvo en lo que afecte a los principios de publicidad y concurrencia así como la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos personales y Garantía de los derechos digitales.

Getxon, 2021eko urtarrilaren 14

**MIKEL KEREXETA KORTABARRIA**

Gizarte Kohesio arloko arduraduna

Responsable del Area de cohesión social